

# BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA. JESUS ELOSEGI FUNTSA

## BELAR GARRAIOAN, MAILOETAN BEHERA

Jesus Elosegi argazkilari tolosarrak hartu zuen irudi hori 1941ean. Aralarretik Uztegrainoko goi-mazeletan segatutako belarra garraiatzeko lanen une bat jasota dago. Udaberrian eta udan, segalariek Mailo inguruko malda handiak direla-eta, zuhaitzei sokaz lotuta moztu behar zuten belarra, eta gero, fardotan bilduta, bailarara jaisten zuten, baserriraino iristen zen kable sistema baten bidez. Uztegi, Araitz ibarreko kontzejua da, Azkarate, Gaintza, Intza eta Arribe-Atallu bezala.